

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO KUADRILLA

Tokiko gobernu batzarraren lehendakariaren eskumenak eskuordetzea, lehendakariaren maiaztzaren 12ko 43/2020 Dekretuaren bidez

Aiarako Kuadrillaren 2019-2023 legealdirako Tokiko Gobernu Batzarra eratu zen, 2019ko urriaren 30ean egindako osoko bilkura berezian hartutako erabakiaren bidez.

Lehendakaritzaren urriaren 31ko 56/2019 Dekretuaren bidez (ALHAO, 134. zk., 2019ko azaroaren 20koa), Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzarraren esku utzi ziren Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak eta aplikatu beharreko gainerako legeriak organo horri esleitzen dizkioten eskumen guztiak.

COVID-19ak eragindako krisia dela-eta lehendakariaren martxoaren 17ko 20/2020 Dekretuan eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak agindutako aparteko egoeran oinarrituta, lehendakariak erabaki zuen tokiko gobernu batzarraren esku utzitako eskumenak galdekatzea.

Administrazio egoerak eta teknologia telematiko berriak ezartzeak administrazioaren jarduna bere onera ekarriko duenez, kuadrillako kideen eta langileen osasuna arriskuan jarri gabe, lehendakariaren erabakia da legeak onartzen dituen eskumen guztiak berriro tokiko gobernu batzarraren esku uztea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (aurrerantzean TAOAL) 20.1 artikuluan eta Toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 35. eta 52. artikuluetan Lehendakaritzaren eskumenen inguruan xedatutakoa ikusi da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 23.2 artikuluan tokiko gobernu batzarrari esleitzen dio lehendakariari laguntzea haren zereginetan eta lehendakariak edo beste udal organoren batek eskuordetutakoetan, edo legeak esleitutakoetan.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 21. artikuluan lehendakariari aitortzen dizkion eskumenak ikusi dira.

Honen bitartez, ebazten dut:

Lehenengoa. Tokiko gobernu batzarraren esku uztea lehendakariaren eskumen izan eta horrek eskuordetu ditzakeen eskumen guztiak. Eskumen horiek etorkizunean areagotu, murriztu edo aldatu egin daitezke. Bat etorri Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikulua xedatutakoarekin, eta kontuan hartuta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 2. xedapen gehigarria (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), hona hemen eskumen horiek:

- 1) Zerbitzuak eta obrak zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea.
- 2) Onartutako aurrekontuarekin bat etorri eta aplikagarri den legediaren baitan, ekonomia kudeatzea eta bere eskumenpeko gastuak egitea.
- 3) Lanpostuen eskaintza publikoa onartzea, osoko bilkurak onartutako aurrekontuarekin eta plantillarekin bat etorri; baita langileak hautatzeko proben oinarriak eta lanpostuak betetzeko lehiaketenak ere. Horrez gain, finkoak eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.

4) Langileak: izendapenak eta zigorrak erabakitzea. Eskumen horrek ez du eragotziko legearen 99.1 eta 3 artikuluetan xedatutakoa.

5) Alkatearen eskumenerako gaietan osoko bilkurari kaltegarritasun adierazpena proposatzeko ekimena.

6) Obra eta zerbitzuen proiektuak onestea, haiek kontratatze edo emateko eskumena duenean eta aurrekontuan aurreikusita daudenean.

7) Obrak, hornidurak eta zerbitzuak kontratatzea, eta administrazio kontratu bereziak egitea honako kasu hauetan:

– Haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa.

– Haien balio zenbatetsia ez bada sei milioi euro baino handiagoa.

– Gehienez lau urteko iraupena (luzapenak barne hartuta) duten hainbat urtetarako kontratuak, baldin eta urte guztietan metatutako zenbatekoa ez bada lehen ekitaldiko aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta ere sei milioi euro baino gehiago.

8) Kontratu pribatuak egitea, bai eta kuadrillaren ondasunen gaineko emakidak adjudikatzea eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea ere, baldin eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta ere hiru milioi euro baino gehiago.

9) Ondarea besterentzea, baldin eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta ere hiru milioi euro baino gehiago.

10) Ondare erantzukizuneko espedienteak izapidetu eta ebaztea.

11) Legeek berariaz lehendakaritzari ematen dizkiotenak, eta estatuko zein autonomia erkidegoetako legeek udalerrinari eta ez beste udal organoei ematen dizkiotenak”

Bigarrena. Indarrrik gabe geratuko dira aurreko eskuordetzeak edo galdekatzeak eta dekretu honen edukia aurka doazen ebazpen guztiak.

Hirugarrena. Tokiko gobernu batzarra hamabost egunean behin bilduko da, hilaren lehen eta hirugarren asteazkenetan, 13:00etan.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiaren 53.3 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Bosgarrena. Erabaki hau Tokiko Gobernu Batzarreko kideei jakinaraztea, eta Kuadrillako Batzarrari horren berri ematea egiten duen lehenengo bileran.

Arespalditza, 2020ko maiatzaren 12a

Lehendakaria

ENCINA CASTRESANA ASTARLOA